

• Hernani •

LAIAREN IBILBIDEA



Kaixo lagunak!
Ongi etorri Santa
Barbara mendiaren
ingurua era atsegin batean
ezagutzeko ibilbidera.

Jolastu, ezagutu eta ikasi!

HERNANIKO ingurune naturala bisitatzeaz gain,
herriari lotutako zenbait ezaugarri kultural ezagutzeko
aukera izango duzu.

LAILA izeneko neskak harnaniarra
izango duzu bidelagun.



Nola burutu behar da ibilbidea?

Eskuarteaz duzun liburuxka honen laguntzaz,
ibilbideaz zehar egongo diren 11
baliza-geldiune edo frogatutako dituzu
(ondokoa bezalakokak). Puntu bakoitzean
galdera bat erantzun edota jolas bat egin
beharko duzu.

IRAUPENA: 2h


ZAILTASUNA: Erraza

DESNIBELA: $\pm 200\text{m}$

Kredituak

Hernaniko Udala Edizioa: 2016. urtea. **Argazkiak:** Hernaniko
Udal Artxiboa, Sagardoaren Lurraldea, Iñaki Sanz-Azkue.

Ilustrazioak: AXPI Diseinua eta gauzatzea: Bizibiziki





Hirigune historikoa

1

Ongi etorri
Hernanira!
Nire herria
gehiago ezagutu
nahi?

Antzinean
harresitutako
eremua

Antzinean, Hernaniko bailara lurralde zabala zen, Urumea eta Oria ibaien arteko lurra hartzen zuen. Hernani izendapen geografiko bezala 1014. urtean agertu zen lehen aldiz dokumentu batean, Nafar Erresuma zenean.

Harresiz inguratutako herria izan zen eta bost sarrera ate izan zituen. Itxura obalatua zuen bertan sortutako gune itxiak eta bere sorreran bi kalek bakarrik osatzen zuten alde zaharra: Kale Nagusia eta Andre kalea. Hauen arteko gune irekietan kokatu ziren merkatua egiten zen gunea, Plaza Berria, eta Gudarien Plaza, egun Udala kokatzen den lekua.

Historiaren bilakaeraren adibide da Hernani, gaur egun baserri-auzoak, herrigunea eta industriaguneek osatzen dute herria.



Nola dute izena Hernaniko
Alde Zaharreko lehen bi kaleek?

- ☐ Kale Nagusia eta Atzieta kalea
- ☐ Andre kalea eta kale Nagusia
- ☐ Txirrita kalea eta Andre kalea

2

Buxkando baserria

Hernanin baserri
asko daude.
Hementxe duzu bat.

Topatu itzazu Buxkando
baserrian bi argazkien
arteko 5 ezberdintasunak.



“Buxkando buxkando” aurkitzen dira gauzak edo hori uste zuen Gaintzako Jose Aranburuk aurrean duzuen baserria eraiki zuenean. Hori izan daiteke baserria *Buxkando* izenez ezagutzearen arrazoiak, benetako izena Elozegi baserria baita. Hasiera batean, baserriak ukuilu-etxea (eskuialdean) eta sagardotegia (ezkerraldean) zituen eta, gerra ondorenean, eraldatu zen: sagardotegiaren gainean bi etxebizitza eta ganbara eraiki ziren. Bertako sagardotegia oso maitatua zen hernaniarrengandik baina baita tranbia hartuta Hernaniko dantzaldietara hurbiltzen ziren donostiarrengandik ere.

Puntu honetatik aurrera, herri gunea utzi, eta garai bateko koral arrezifea zen Santa Barbara mendian murgilduko gara. Natur ingurunetan galdu gabe ibiltzeko mendiko seinaleei erreparatzea ezinbestekoa da. Ezagutzen ahal dituzue?

Lotu ikur bakoitzak dagokion esanahiarekin.

ESKUINERA JO

NORABIDE OKERRA

BAT BATEKO ALDAKETA ESKUINERA

EZKERRERA JO

BIDEA HEMENDIK

BAT BATEKO ALDAKETA EZKERRERA



Marka Txuri-Urdinak ibilbide honen zati batean bidailagun izango ditugu. Erreparatu beraz eta jarri praktikan ikasitakoa.



Aurrean duzuen jolas honen laguntzaz, adierazi ezazue nolakoa den akaziaren hostoa.

Hantza

Baurrea

Erbia

Hoilbide honetan, igoeran zehar, zuen eskuineko aldean pasatako zuhaitzak akaziak ziren, gure baratzeak eta larreak hesitzeko erabiltzen den egur mota dugu, besteak beste. Hauek gain, haritzak, gaztainondoak, sagarrondoak edota pinuak ikusteko aukera izango dugu. Ireki ondo begiak!

Ba al zenekien?

Duela 120 milioi urte, Kretazeo garaian, Euskal Herrian klima tropikala zen nagusi. Itsas ondoak nahiko azalekoak izateak zenbait organismo eraikitzaileen sorrera ekarri zuen. Uharte-eraikitzaile (koral) horiek langa luzeak eratuz lerrotu ziren Euskal Herrian, ekialde-mendebalde norabidean. Koral arrezife ziren horiek egun kareharritzko mendiguneak direnak sortu zituzten. Horietako bat Santa Barbara mendia dugu.



Basoan, oihanean, itsasoan... ezagutzen al dituzue ingurune bakoitzean bizi diren animalia espezieak?



Pinudian ezkutaturik dagoen zein animalia esango zenuke ez dela Hernaniko basoetan bizi?

- ☐ Untxia
- ☐ Txoria
- ☐ Lehoia
- ☐ Katagorria

Non sartu ote dira animaliak?

Adi egon!!! Begiratu zuen ingurura, pinudian barrera, eta animalia ezkutuak aurkitu itzazue.



6

Santa Barbara ermita

Santa Barbara ermitak antzina, meza emateko ez ezik, erabilera bitxia izan ohi zuen. Gune honetatik ekaitza edota trumoiak zetorrela ikusten zenean, herritarrak jakinarazteko ermitako kanpaiak jotzen zituzten. 1725. urteko dokumentu batek dioenaren arabera, uzta garaian zehazki, Santa Barbara ermitako kanpai hotsak entzutean Hernaniko parroikiko kanpaiak jotzen hasten ziren, herritar guztiak ekaitzaren aurrean prest egon zitezela ohartarazteko.



Ba al zenekien?



Santa Barbara ermita gotorlekua baino zaharragoa da, XVII. mende hasierakoa alegia. Gotorlekuari buruzko lehen berriak 1793ko azaroaren 20koak dira. Egun horretako Udal aktan Probintziako Foru Aldundiak Hernaniko Udalarari Santa Barbara ermita ingurua gotorleku bihurtzeko egin zion eskaera azaltzen da. Ordutik, I. Guda Karlistan (1833-1839), II. Guda Karlistan (1872-1876) eta Guda Zibilean (1936) egon da okupaturik.



Hernaniko
Parrokia



Zertarako erabiltzen zen Santa Barbara ermitako kanpaina?

ERANTZUNA:

Sagardoa eta sagardotegiak, tradizioa dela medio, garrantzitsuak dira nire herrian, gure kulturen eta gure egunerokotasunean.



Lagunduko al didazu sagardoaren ekoizpenaren prozesua era egokian zerrendatzen?

A

B

C

D



Ba al zenekien?



Hernani sagardoarekin lotutako herria da, Txotx Garaia urtarrilean hasi eta apirila arte luzatzen da. Egun baserrietara mugatzen da sagardoa edan edota erosteko gunea; garai batean, ordea, sagardotegi asko herriko kaleetan zeuden eta normalean beraien dolarea izaten zuten.

Donostiar ugarik Hernaniko sagardotegiak gustoko zituzten eta ohikoa zen tranbian etortzea beraien kazuelak eta guzti. Sagardotegietara janaria norberak etxetik ekartzea ohikoa zen; orain aldiz, bakailao tortilla, bakailaoa, txuleta, gazta, menbrilloa eta intxaurrak da sagardotegiek eskaintzen duten menua.

8

Eskalada

Santa Barbara mendian
eskalada praktikatzeko
gune aparta dago, puntu
honetatik metro gutxira
(*ikusi mapan*).

Erakutsi ezazu eskaladan
aritzeko duzun trebetasuna
ondorengo jokoan. Ez
zaitez labirintoan galdu!



A

B

C



Goiko bandera eskuratzeko, zein bidetik
eskalatu beharko zenuke?

A

B

C



Hernanin auzo asko daude: Antziola, Elizatxo, Epele, Ereñotzu, Etxeberri, Florida, Galarreta, Jauregi, Karabel, Karobieta, Latsunbe, Lizeaga, Martindegi, Osinaga, Pagoaga, Portu, Sagastialde, Sagastialdeberri, Santa Barbara, Sorgintxulo eta Zikuñaga. Baserri gehienak nekazal-auzoetan kokatuta daude.

Gurrean duzun baserriak Agerre izena du eta bertan, lurra lantzeaz gain, abereak zaintzen dituzte (behiak, oiloak, txerriak, etab.)



Ba al dakizu zentzarako erabiltzen diren azpian dauzkazun lanabesak eta zein izena duten? Lotu irudi bakoitza dagokion izenarekin.

Goldea

Lurra mugitzeko eta prestatzeko tresna.

Igitaia

Ilargi erdiaren forma duen aihotz bat da.

Laia

Lurra iraultzeko erabiltzen den lanabesa.

Sega

Belarra mozteko tresna, altzairuzko aihotz handi batek osatzen du.

Sardea

Lurra, belarra eta beste material batzuk banatzeko, askatzeko eta jasotzeko tresna.





Santa Barbarako lakua, era naturalean sortutako lakua da. Arrokaaren erosioaren ondorioz eratutako zuloa da, buztinez estalitako oinarria duena. Animalia gutxi dagoen arren, zenbait anfibio ederki bizi dira laku honetan: uhandrea esaterako.



Uhandre marmolaire (*Triturus marmoratus*)

Ezaugarriak:

- 15-16 cm-ko luzera.
- Kolore berde bizikoa du azala, honek bereizten du beste tritoiengandik.
- Elikagaia: urpeko ornogabeak.
- Ur inguruetan bizi da, baso eta larreetan.

Zein koloretakoa da gingiran bizi den uhandrea?

Lotu zenbakiak uhandrearen irudia osatu ahal izateko. Ibilbidea bukatzean, marrazkia apaintzeko eta koloreztatzeko aukera izango duzue!



Ba al zenekien?



Azeri Dantza

11

Garai batean, dantzari buruak eta lehen dantzariak bakarrik eramaten zuten maskuria. Besteek poltsikoetan irina eta aurpegia zikintzeko beste zenbait gai eramaten zituzten. Azeri Dantza edo Maskuri Dantza Inauteri garaian egiten zenaren berri XIX. mende bukaeran aurkituko dugu. Guda Zibilaren ondoren, aldiz, inauterietan egitea debekatu zen eta San Joanetan bakarrik ospatzen zen. Zorionez, azken urteetan inauterietan dantzatzeko ohitura berreskuratu da.



Zenbat dantzarik hartzen dute parte Azeri Dantzari?

Irakurri arretaz paneleko informazioa.

ERANTZUNA:



Primeran! Laiaren Ibilbidea
osorik burutu duzu!